



ELIZBARRUTIKO KARITATE EGUNA – 2023 EGUBERRIA EGUBERRI HONETAN, ZUK ZERIKUSI HANDIA DUZU

Liturgia gida. Abenduaren 3. Igandea (2023/12/17)

Sarrera

Ongi etorri ospakizun honetara. Igandez igande prestatzen gara Eguberriak kristau-zentzu handienez ospatzeko. Zauriz, errealitate neketsu eta kezagarritz betetako Eguberriak izango ditugu aurten: gerrak, batzuk orain hasiak eta beste batzuk kronifikatuak; indarkeria hilgarri eta iraunkorrak, bidegabekeria fosilizatuak edo berpiztu egiten direnak...

Hala ere, ezin diogu uko egin Eguberri oso eta atsegingarria izateari. Horregatik, ahalegindu behar dugu Jesusengan dugun fedea handitzen, itxaropena transmititzeko eta kutsatzeko, eta, batez ere, hainbesteko beharren neurriko karitatea suspertzeko eta praktikan jartzeko. Hala, Eguberrietan, Jesusen Jaiotzaren argi beroa eraman ahal izango diegu argirik, itxaropenik eta egiazko kontsolamendurik gabeko bizitza sufritzen ari direnei.

Caritas aukera ezin hobea da fededunen eta komunitateen ahalegin hori bideratzeko. Gure eskuek, gure baliabide pertsonalek eta materialek, erremedioa eta laguntza eman diezaiekete bizitzak gaizki tratatu eta zauritu dituenen.

Kristau festa handia izan daitezke gure Eguberriak, eskuzabaltasunean, anaitasunean eta karitatean ahalegintzen bagara. **Aukera** irekiak dira horiek, jasotzen dituztenen bizitza duintzeko eta ematen dituztenen bizitza santifikatzeko gai direnak.

Barkamenaren unea

Jesusen jaiotzaren hurbiltasunak Berekin bat egitera bultzatzen gaitu. Jesusez betetzeko, eta batez ere Jesus imitatzeko eta Jesusi jarraitzeko, bere grazia eta barkamena behar ditugu.

- Jauna, zu ikusteko gai izan gaitezen Eguberri hauek ospakizunik gabe eta mehatxupearan biziko dituzten hainbat eta hainbat pertsonaren aurpegietan eta premietan.
ERRUKI, JAUNA.
- Kristo, egunen batean zure ahotsa entzun dezagun honako hau esaten: "*Gose nintzelako eta jateko eman zenidatelako*".
KRISTO, ERRUKI.
- Jauna, Eguberri hauetan karitateak eta eskuzabaltasunak bazter ditzaten geurekoikeriak eta gure gutziak.
ERRUKI, JAUNA.

Irakurgaiak

1. irakurgaia. Is 61,1-2. 10-11: Isaias profetak, Jesusek bere misioan Berri On gisa hartuko dituen ezaugarriak aurreratzen ditu: nolabait ere, Jesusi bizitzan jarraitzen saiatzen garenon misioaren eta nortasunaren parte dira helburu horiek.



2. irakurgaia. Tes 5, 16-24: Pablok itxaropena indartzen du, bereiztea gomendatzen du eta Tesalonikako fededunen iraunkortasuna suspertzen du. Horixe da erremedioa ez akitzeko eta beti gauza onekin geratzeko, gauza on horiek praktikatzeko. Hala izan bedi gure artean Eguberri hauetan.

Ebanjelioa. Jn 1,6-8.19-28: Argia bezain zintzoa da Juan Bautista. Garrantzitsua Jesus da, eta gertu dago dagoeneko. Juanen ezaugarri horiek dira batez ere orain berregin behar ditugunak: Eguberrietan garrantzitsuena da Nor datorkigun, Jesus eta bere Berri Ona.

Jainko herriaren otoitza

Abendualdiko azken aste honetan, egiazko Eguberriak nola bizi erakusteko eskatzen diogu Jainkoari. Horrela ospatu nahi dugu, eta horrelaxe eskatzen diogu gaur:

- Elizaren eta bere komunitateen alde, Jesus gudan egon dadin, txikienei eta behartsuenei gure elkartasuna eta karitatea eskainita. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA
- Eguberri hauek gerren, indarkeriaren, jazarpenaren, gaixotasunaren, abusuaren edo bazterketaren mehatxupearan eta estututa igaroko dituztenen alde. Eguberrietan behintzat duintasunez hartuak eta elkartasunez tratatuak izan daitezten, beren beharren arabera. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA
- Eguberri hauetan, Jesusek, ume eginda, miseriakordia-, bake-, justizia- eta anaitasun-sentimendu emankorrek piztu ditzan gudan. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA
- Jai hauetako giro onak, anaitasunezkoak, eskuzabalak eta karitatezkoak izatera bultza ditzaten gure familiak eta komunitateak. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA
- Gure laguntzarekin, elizbarrutiko eta parrokiako Caritasek, artatu eta konpon ditzala prekaritateak eta pobreziak, penak eta samintasunak, eta pertsonen lagun diezaie bazterkeriatik, bakardadetik eta bidegabekeriak ateratzen. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA

Aita, Eguberri hauetan Zuri eta gure anai-arreba behartsuenei emanda bizi dezagun Jesusen jaiotza. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Agurra

Aprobetxa ditzagun egun hauek Eguberrietarako gure prestakuntza amaitzeko. Badakigu Jesus jaiotze eta berpiztu egiten dela itxaropenez beterik eta karitaterako prest hartzen dugunon artean. Har dezagun Jesus gurekin hartuta hura ongien pertsonifikatzen dutenak: pertsona eta familia behartsuak, guk lagun diezaiekegunak.

Batez ere, orain badugu Jesus hartzeko aukera, elizbarrutiko eta parrokiako gure Caritasi eutsiz eta emanaz ahal dugun gutxi-asko hori. **Eskerrik asko! Eguberri on!**